

**Euskara bidea egiten
terreno birjinean**

Euskara makina artean

Ikasleak langileak

**Makina arteko ikasle
eta langileak euskaraz**

Lantokira iritsi aurreko euskararen urratsak

Makina-Erremintaren Institutua (IMH) Elgoibarren (Gipuzkoa) dago, Berrikuntza Teknologikorako Zentroa eta Lanbide Heziketa eskola da. Makina-erremintaren inguruko prestakuntzaren eta zerbitzuen eskaintzan, euskara txertatzen aurrenetako zentroa izan zen.

SAIOA LABAKA

Argazkia: IMH

ELGOIBARKO eta inguruko eskualdeetako errealitate soziolinguistikoa bultzatuta sortu zen *Goazen* euskara plana IMHn. Aintzat hartu beharrekoa da Elgoibar, Debarrena eta Urola-Kosta eskualde euskaldunak direla. 2003an, AEK-ko Ahize Hizkuntza Aholkularitza Zerbitzuaren eta IMHren arteko lankidetzari esker jarri zuten abian euskara plana. IMHn bertan euskararen erabilera sustatzea eta makina-erremintaren sektorean eragitea dira planaren helburu nagusiak. Euskara plana garatzeko zazpi programaren metodologia —erabilera, ezagutza, motibazioa, erakundetzea, komunikazioa, finantzaketa eta jarraipena— landu dute. Bezeroen eskaerak, zerbitzuaren kalitatea, norbanakoen hizkuntza eskubiak eta enpresetara iritsi arteko hizkuntza katea bermatu eta uztartu nahi ditu IMHk. Hiru hizkuntzatan, hau da, euskaraz, gaztelanian eta ingelesean, oinarritzeko gaitasuna izango duten teknikariak formatzea da enpresaren beste xede nagusietakoa. Era berean, prestakuntza eta zerbitzu guztiak cleaniztasunean eskaintzeko hau-tua egin dute enpresa honetan.



Ikasleak eta langileak hizkuntza harremanetan, %58an euskaraz aritu dira, 2009ko neurketaren arabera.

Eskolak euskaraz

IMHko 2009ko datuen arabera (3.382 ikasle-langile), zerbitzu nagusi guztietan eskaini zituzten eskolak euskaraz. Edurne Bilbao IMHko komunikazio arduradunak jakinarazi digunez, Lanbide Heziketa zikloetan eta Txandakako Ingeniaritzan, urtero sortzen dira euskarazko taldeak. Ingeniaritza Eskolan Logistika, Arazoak ebazteko tresnak eta Metodoak eta Indus-


trializazioa, besteak beste, ematen dituen irakaslearekin hitz egin dugu eskolak euskaraz nola prestatzen dituzten jakiteko. Egoitz Badiolak hamar urte daramatza IMHn irakasle, eta Ingeniaritza eskolan duela hiru bat urte hasi ziren eskolak euskaraz ematen. Ikasgaietako euskarazko terminologiarekin zer moduz moldatzen diren galdetu diogu: “Ingeniaritzan eskolak gaztelaniaz eman izan direnez eta ematen direnez, material hori euskaratzeko itzulpen eta egokitzapen lanak egiten dira. Oro har, oraindik ez da hutsetik euskarazko materialik sortu behar izan. Ez dugu arazo

berezirik izan euskarazko terminologiarekin. Hitz tekniko batzuk erabiltzeko ez dugu ohiturarik oraindik, arruntagoa zaigulako hitz batzuk gaztelaniaz esatea. Hala, ikasi egin behar ditugu hitz tekniko berri horiek eta erabili; hori da normaltasunera iristeko bidea. Hau guztia pixkanaka konponduko delakoan nago”. Badiolak dituen ikasle-langile gehienak euskaldun zaharrak dira, eta horiek ere ondo moldatzen omen dira euskarazko


EUSKARAREN ERABILERA

Formazioa eta zerbitzu orduak	Orduak guztira	Euskaraz	
		Orduak	%
Hasierako Lanbide Heziketa	13.410	8.100	60,4
Lanbide Heziketa I	11.209	322	2,9
Ingeniaritza	1.830	466	25,5
Ekinberri	2.700	600	22,2
Incess	8.000	375	4,7
Guztira	37.149	9.863	26,5

Euskaraz eskaintako formazioa



Euskaraz eskaintako zerbitzu orduak



hitz teknikoekin. Hitz batzuen aurrean, irribarre egin edota zalan-tza batzuk sortzen bazaizkie ere, ez dute inongo arazorik.

Edurne Bilbaok jakinarazi digunez, badira euren prestakuntza gaztelaniaz jaso duten irakasleak eta euskarazko terminologia erabiltzea kostatzen zaienak. Kasu horietan, ahozko azalpenetan gaztelaniazko eta euskarazko terminoak tartekatu ohi dituzte irakasleek. Bidenabar, noizbait gertatu izan zaie irakasgai jakin bat euskaraz emateko inor ez topatzea. Oro har, gero eta errazagoa gertatzen zaie IMHn irakasle euskaldunak aurkitzea.

%26 euskaraz

Makina-Erremintaren Institutuak plazaratu berri ditu 2009ko *Goazen* planaren inguruko datuak. Enpresaren ahozko lan hizkuntzaren %58 euskaraz egin zen, eta idatzizkoan %30. Azken urteetako datuei erreparaturaz gero, euskararen erabilera areagotzen ari da enpresan. Enpresako langile euskaldunen %69k erabili zuten euskara ahozko harremanetan, eta %45ek idatzizko harremanetan. Formazioari dagokionez, berriz, eskaintza guztia %26,5 eman zen euskaraz. Hain zuzen ere, 9.863

ordu. Azken urteetako daturik onenak izan dira eurentzat.

Datozen egitasmoak

Udaberri honetan kanpaina berezia abiatuko du IMHk euskarazko prestakuntza zerbitzuak sustatzeko, bereziki, langileei zuzendutako prestakuntza iraunkorra indartzeko.

Bestalde, Hasierako Lanbide Heziketan eta Ingeniaritzan praktika moduluak euskaraz garatu nahi dituzte, eleaniztasun proiektuaren baitan. Esaterako, Edurne Bilbaok adierazi digunez, Ingeniaritzako ikasleek ikastaroko alde praktikoa euren enpresetan garatzen dute, eta enpresen hizkuntza-kudeaketa aintzat hartu behar izaten dute. Bilbaok gaineratu duenez, askotan gertatu izan zaie ikasleek ahozko lana euskaraz garatzea, eta idazterako

Udaberri honetan kanpaina berezia abiatuko du IMHk euskarazko prestakuntza zerbitzuak sustatzeko, bereziki langileei zuzendutako prestakuntza iraunkorra indartzeko

Makina-Erremintaren Institutua

IMHk goi eta erdi mailako Lanbide Heziketako Ziklo Industrialak eskaintzen ditu. Hala nola, Fabrikazio Mekanikako Diseinuak, Industri Ekipoen Mantenimendua, eta Makineria eta Linea-eroanbideen Instalazio eta Matenimendu Elektro-mekanikoa. Lanbide Heziketa Iraunkorreko Ikastaroak ere eskaintzen ditu; langabeak eta lanean ari direnak eguneratzeko ikastaroak. Bestetik, IMH Ingeniaritza Eskola ere topa dezakegu eskaintzen artean; lana eta ikasketak txandakatzeko metodoarekin bateratzen dituen unibertsitate mailako prestakuntza. Ekinberri egitasmoak, berriz, bertako eta Europako proiektuak garatzen ditu, baita Internet bidezko formazio teknikoak ere. Enpresei, Incess egitasmoaren bitartez, langileen gaitasunen kudeaketa egokia egiteko zerbitzu integrala eskaintzen zaie.

orduan gaztelania erabiltzea. Oro har, oso ikasle gutxi animatzen da proiektuak euskaraz garatzen. Horretarako, aurtun aurreikusi dute hizkuntza errefortzua eskaintzea proiektua euskaraz egiteko pausoa ematen duenari.

Heziketa Zikloetako ikasleek eleaniztasunean euskaraz aukera izaten dute, eta euskaraz eta gaztelaniaz ikasteko taldeak osatzen badira ere, ingelesez ikasteko taldeak ez dira sortzen. Hori dela eta, ikasgai batzuetako modulu jakin batzuk ingelesez garatzeko asmoa dute IMHn. Eta ikasle batek euskaraz ikasteko hautua egin badu, era berean, baliabideak eskainiko zaizkio, modulu batzuk gaztelaniaz eta ingelesez egin ahal izateko. Gauza bera gaztelania hautatu duenarekin. Eleaniztasunaren ildo honetatik jarraituko dute lanean. ■